



Ama-esnea, ikergai

Erraustegiaren isurkinen ikerketan parte hartu dute Yune Moreta eta Lorena Ciria herritarrek; esne laginak eman dituzte / 8-9

TXINTXARRI

%1eko igoera orokorra

Udalbatzarrak 2020. urterako ordenantza fiskalak onartu ditu, PSE-EEren aldeko bozkekin / 2

Udal Musika Eskolako zenbait ikaslek ez dituzte klaseak hasi oraindik, irakaslerik ez dagoelako / 4

Lanaren fruituak: Aitor Manso karting pilotuak hirugarren postua lortu du Gaztela eta Leongo Txapelketan / 10

2mó/
graduatu, erreflexuen/
aurkako lenteekin **99€**

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehenaz bitzitu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com   

PSE-EEK bakarrik egin du ordenantza fiskalen alde

Oposizioko alderdiek abstentziora jo dute astelehenean egin den udalbatzarrean. 2020. urtean, zergak eta tasak, orokorrean, %1eko igoera izango dute. Bada salbuespenik: hala nola zinema sarrerak, zabor-tasa, ur-hornikuntza eta estolderia

Txintxarri

Ezohiko udalbatzarra egin zen astelehenean eta 2020. urtean indarrean izango diren udal-ordenantzak egon ziren mahai gainean. Ogasun batzordean landu ostean, hamabi proposamen berraztertu zituzten eta guztiak atzera bota.

Udal-ordenantzak bozkatzeko orduan, ordea, PSE-EEren aldeko bozka nahiko izan zen 2020. urteko tasa eta zerga berriak zehazteko. Gainerako alderdiek abstentziora jo zuten.

Era honetara, zergak eta tasak %1 igoko dira. Udal Gobernuak azaldu duenez, "2020ko zergak eta tasak igotzeko erabilitako irizpidea da Funcasen (Aurrezki Kutxen Fundazioa) abuztuko KPIren aurreikuspena aplikatzea".

Baina ez da igoera hori orokorra izango. Zabor-tasa eta ur-hornikuntza tasa gehiago igoko dira, %5 eta %5,5, hurrenez hurren. Gainera, %20ko igoera ezarri da bide publikoan banagailuak, hau da, *vending*-eko makinak edo kutxazain automatikoak ezartzeagatik.

Bada izoztu edo jaitsi denik ere. Izoztu egin dira Gizarte Zerbitzuetako, Udal Musika Eskolako eta Euskaltegiko tasak eta Manuel Lekuona Kultur Etxeko zinema sarrerak. Eta estolderiaren tasa %8 jaitsi da.

Berrikuntzak ere izango dira hurrengo urteko ordenantzetan. Nabarmenenak bi dira: Ondasun Higiezin Zergan aprobetxamendu termikorako edo energetikorako sistemak instalatzen dituzten etxebizitzetara zuzendutako %25eko hobaria eta apustu-etxeen, joko-aretoen edo apustu nahiz jokorako web plataformen publizitatea, errotulazioa edo kartelak %100ean kargatzen dituen tarifa.

Udal gobernuak eskerrak eman zizkien gainerako alderdiei egindako lanarengatik. Era berean, 2021eko ordenantzetako



Ur-hornikuntza tasak jasango du igoera handiena hurrengo urtean, %5,5a. TXINTXARRI

hainbat gai "sakonki" lantzeko mahai tekniko eta politikoa sortuko duela jakitera eman zuen. Hiri-hondakinen bilketa tasa edo ondasun higiezin zergan etxebizitza hutsak nola zigortu aztertuko dute.

Oposizioaren proposamenak

EAJ izan zen bakarra bere abstentziora saioan bertan azaltzen. Bere hitzetan, "onartutako ordenantza fiskalak ez dira politikoki oposizioari aurkeztuko lizkiokenak". Gainera, alderdi jeltzaleko kideek aipatu dutenez, ez da mahai teknikorik deitu ordenantzen berregituraketa lantzeko. Hori "ahalik eta azkarren" egitea nahi dute.

EAJk denda txikiak zaborren tasetan Gobernu taldeak planteatutako %5eko igoerak ez izatea defendatzen du; kamioien tarifak izoztuz gero, garraio enpresek udalen diru sarrerak handitzen lagun dezaketela uste du. Horrez gain, "koherentzia" eskatu zion Udal gobernuari. "Kulturaren eta Euskaltegiaren tarifak izoztu diren bezala, koherentziaz, gazteriaren eta Udako Txokoen prezioak ere izoztu beharko lirake".

EH Bilduk ere eman du egin dituen proposamenen berri. Nahi zuten etxebizitza hutsen gaineko

2020. urteko zerga eta tasak

Hirilurren balio-gehitzapenaren gaineko zerga-tasa:	%5,23
Autoen zerga (zaldi fiskalen arabera):	41,45 eta 393,85 euro artean
Ondasun higiezin zerga-tasa orokorra:	%0,1918
Ur horniduraren zerbitzuak - etxeko erabilera:	0,57 euro/m ³ edo 0,76 euro/m ³
Estolderiaren zerbitzuaren kuota:	%138,7
Zabor bilketa zerbitzua - etxeko erabilera:	101,65 euro

ondasun higiezin zerga %50 igotzea, "espekulazioa saihesteko"; %30eko hobaria izatea bosgarren edukiontzien erabiltzaileek, herriko "birziklapen tasa tamalgarrira" hobetzeko; zaborren zergaren %5eko igoerak erraustegiaren finantzazioarekin lotura duelakoan, igoera %1ekoa izatea; eta irabazi asmorik ez duten elkarteek ez ordaintzea kultur zerbitzuen tasa.



Lasarte-Oriako ordezkarietako kideetako batzuk, jasotako domina eta ikurrekin. AIURRI

Lasarte-Oriako odol-emaileen eskuzabaltasunari aitortza

Hogei bat herritarrek jaso dute oroigarria, urriaren 27ko Oria Beheko ordezkarietaren bilkuran

Txintxarri

Oria Beheko Odol-Emaileen ordezkarietako urriaren 27an egin zuen urteroko bilkura, igandez, Urrietako Oianume jatetxean.

Aia, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Billabona, Ereñotzu, Hernani, Ibarra, Irura, Orio, Tolosa, Urnieta, Usurbil eta Lasarte-Oriako elkarteetako kideak bildu ziren bertan. 25, 50, 75, 80 eta 100 emari egin dituzten pertsonen dominak eta ikurrak banatu zizkieten.

Jaiari hasiera emateko odol-emaile guztiek Orbeldi dantza taldeko kideen ongietorria jaso

zuten. Agurtzane Solaberrieta Usurbilgo alkateak hartu zuen hitza jarraian eta emaileek egindako lana aitortu zuen.

Bilurako une gorena iritsi zen horren ostean: oroigarrien banaketa. Lasarte-Oriako kasuan, hogei bat pertsonak jaso zuten elkartearen esker ona: 25 emari egin dituzten zortzik; 50 emari egin dituzten seik; 75 emari egin dituzten lauk; 80 aldiz eman duten bik; eta 100 emari egin dituen pertsona batek.

Talde argazkia atera eta banaketa amaitu ostean, jatetxean bazkariak gozatu zuten guztiek.

Sagardo botilak berrerabiltzeko proiektua martxan da

Sagarberitu proiektu-pilotuak ekonomia zirkularra aktibatu nahi du Beterri-Buruntza eskualdean

Txintxarri

Beterri-Buruntza eskualdean, Sagarberitu proiektu-pilotua sustatu dute Gipuzkoako Sagardo Elkarteak eta Euskal Sagardoaren baitako entitateek. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailak diruz lagundu du.

Honen bitartez, sagardo-sektoreko botilak sagardotegietatik jaso, garbitu eta berrerabiltzeko sistema jasagarri bat bideragarri dela erakutsi nahi dute. Ekonomia zirkularrean oinarrituko dira horretarako. Izan ere, botilen

berrerabilpenarekin bakoitzaren iraupena luzatu eta erabilitako produktua berriz lehengai bilakatzea lortu nahi baita.

Bestalde, ingurumena zaintzeaz gain, proiektuak helburu sozial nabarmena du. Guztia kudeatzeko Beterri-Errotuz laneratze enpresa sortu eta honen bitartez botilak jasotzeko pertsonak kontratatu dira.

Nagusiki sagardotegiak parte hartzen dute proiektuan, baina norbanakoek ere aukera dute euren aletxoak jartzeko. Sagardo botilak Garbiguneetara eramatea nahiko da.

Ane Labaka eta Asier Azpiroz, finalaurrekora

Larunbatean Azkoitian jokaturako bertso saioarekin amaitu dira txapelketako final-laurdenak. Bertan parte hartu du Ane Labakak, eta saio horretan lortutako puntuak aurreko sailkapenei gehituta lortu du finalaurrekora sailkatzea. Asier Azpiroz ere arituko da finalerdian

Txintxarri

Gipuzkoako Bertso Txapelketak aurrera jarraitzen du, eta azken txanpa besterik ez da geratzen probintziako garailea deliberatzeko. Final laurdenak pasa den larunbateko saioarekin amaitu ziren. Azkoitian aritu ziren sei bertsolari, eta bertako sailkapenaren ostean, zehaztu da finalaurrekoan arituko diren bertsolarien zerrenda.

Beñat Gaztelumendi Añorgako bertsolaria izan da Azkoitian garaile, baina oso gertu izan da Ane Labaka Lasarte-Oriako bertsolaria. 475 puntu pilatu ditu Gaztelumendik eta 455, berriz, Ane Labakak. Larunbateko saioan bigarren amaituta eta aurreko saioetako puntuekin batera, finalaurreko saiorako sailkatzea lortu du.

Ez da ordea, Lasarte-Oriako Earra bertso eskolako bertsolari bakarra izango finalaurrekoan. Asier Azpirozek ere saio onak egin, eta lortu du hurrengo fasera igarotzea. Eta ez hori bakarrik, zuzeneko lehiakide izango dira bi bertsolariak finalaurrekoan. Oiartzungo Elorsoro kiroldegian izango dute lehiaketa, hilaren 24an, igandea. Bertan neurtuko dituzte indarrak Earra bertso eskolako bi bertsolariak.



Ane Labaka, pasa den larunbatean, Azkoitian. GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Beraiekin batera ariko dira koplaka, Oiartzunen, Beñat Gaztelumendi, Iñigo Mantzisor, Alaia Martin eta Amaia Iturriotz. Arratsaldeko 17:00etan izango da saioa.

Finalaurreko hiru saio

Oiartzungo saioarekin batera, beste bi finalaurreko ere izango dira. Azaroaren 17an, Arrasateko Uarkape pilotalekuan 17:00etan bat, eta, bestea, abenduaren lehen egunean Tolosako Usabal

kiroldegian. Hori ere arratsaldeko 17:00etan izango da.

Honakoak izango dira bertsolariak egin beharreko lanak. Binaka, gaia emanda, hamarreko handian hiruna bertso; binaka, gaia emanda zortziko txikian hiruna bertso; binaka, gaia emanda 6 puntuko motzean hiruna bertso; binaka, gaia emanda, zortziko txikiak zortzi bertso osatu arte, eta azkenik, Kartzelakoan, bakarka gaia emanda, doinu eta neurri librean, hiruna bertso.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

Hilezkortasuna

Mendeak daramatza gizakiak eboluzionatzen. Errota geldiezin batean murgildurik, etengabeko ikerketa eta aurrerakuntzak egiten dihardu; nahiz eta badagoen nor helburu zehatz eta norabide finkorik gabeko gorpil ero batean sartuta gaudena dionik ere.

Eboluzio honen arloetako bat, askoren artean, zientzia da. Bistan da zenbat aurreratu den arlo honetan: garai batean sendaezinak ziren gaitzak gaur egun ia ez dira existitzen; gorputzeko zenbat organo eta atal transplantatzen diren; odol transfusioak, klonazioak, aldaketa genetikoak, eta abar luze bat.

Gizakiak, bere gorpil ero honetan, badu aztoratzen duen gai bat: hilezkortasuna, alegia. Oraindik bete ez duen ametsa; ilargira heltzearena baino desiragarriagoa, baina oraingoz betetzen ez dena. Badira hainbat pertsonaia ezagun, boteretsu eta dirudunak, hil eta gero beren gorputza izotzarazi zutenak noizbait berpiztuko ote dituzten itxaropenarekin! Argi dago orain dela ehun urte baino gehiago bizi garela, bizi kalitatea hobetzearekin batera bizi iraupena ere luzatu egin dela, nahiz eta askotan pentsatu bizirik irautea bizitzea ote den.

Bizitzaren luzatze honek eragin zuzena izan du gutako askorengan, eta horretarako bi pertsona helduren elkarrizketa entzun besterik ez dago: adineko askoren hitzetan, norbait gazte hil dela diote 70 edo 80 urte izan arren, hilezko bailiran. Egia da gaztetasuna norberaren baitan dagoela, norberaren izaeran, pentsaeran eta jarreran; baina urteak ez dira alferrik pasatzen eta ez dute barkatzen.

Ni, hil artean, beti izango naiz etxeko txikia, umea, mutikoa.

'Kontent-Tu' egitasmoaren araudia, parte-hartze bidez

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du *Kontent-Tu* egitasmoaren barne-araudia osatzeko prozedura martxan jarri duela. Lehenengo eskatzea ekarpenak egiteko gai horren inguruan, parte-hartze prozesu baten bidez. Iritzia emateko azken eguna abenduaren 5a izango da, osteguna. Zenbait baliabide eskaini dizkie udalak

lasarteoriarrei, proposamenak egin ahal izateko: idatzi bat aurkeztu dezakete erregistroan; posta elektronikoa bat bidali partehartzea@lasarte-oria.eus helbidera; edo <http://www.lasarte-oria.eus/eu/partehartzea> web orrialdean sartu eta bertan iritzia eman.

Iaz sortu zuen udalak *Kontent-Tu* zerbitzua. Helburua da herritarren zahartzarora "ederra eta zoriontsua" bilakatzeko ohiturak sustatzea edo mantentzea.

GIDA KOMERTZIALA

www.txintxarri.eus/gida

Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletetan...

txintxarri

GIDAN PARTE HARTZEKO:

publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66 | Geltoki kalea, 4



ISLANDIA
(itsas bidaia)

NORVEGIAKO FIORDOAK
(itsas bidaia)

ERRUSIA

ZETAREN BIDEA
(Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK
Denboraldi aurrerapena

ESLOVENIA & ISTRIA

NOAOA BIDAIAK
T.: 943 373 613
info@noaoa.eus
Hipodromo Etorb. 10,
Lasarte-Oria



Irtenbiderik gabe jarraitzen dutenez, egoera salatu eta berriro ere publiko egitea erabaki dute hainbat herritarrek. TXINTXARRI

Ikasturte berrian ere berdin: irtenbiderik gabe

Udal Musika Eskolako ikasleek lehengo urteko ikasturteko arazo berdinekin hasi dute ikasturte berria. Musika modalitate batzuetako irakasleak urrian hasi dira lanean, baina tronpetako ikasleek, eskolak jaso ezinik jarraitzen dute, irakaslerik ez dagoelako

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolako ikasleen gurasoei agortu zaie pazientzia. "Nazkatuta" daude pasa den ikasturtetik jasaten ari diren arazoarekin, eta behin betiko irtenbide bat eskatu diete ordezkari politikoei.

2018-2019 ikasturtean Manuel Lekuona kultur etxe aurrean salaketa agerraldi bat egin zuten musika eskolako ikasleen gurasoak. Astearte honetan, zoritxarrez, irudi berbera errepikatu da berriro ere. Ikastetxeetako ikasturtearekin batera, irailean hasi zen udal musika eskolako kursoa ere, baina bertako ikasle batzuek urrira arte irakaslerik gabe egon dira, eta beste zenbaitek, oraindik, eskolak jaso ezinik jarraitzen dute.

Pianoko, hizkuntza musikaleko eta koruko irakaslerik ez zeukan musika eskolak irailean. Horrela, modalitate horietako ikasleek urrira arte itxaron behar izan dute musika eskolekin hasteko.

Bost asteko atzerapenarekin hasi dute beraz, ikasturtea, baina martxan dira dagoeneko.

Oso ezberdina da, ordea, tronpetako ikasleen egoera. Irailaren 20tik irakaslerik gabe daude, eta eskolak jaso ezinik jarraitzen dute, eta ez dirudi berehalako irtenbiderik emango zaionik.

Salaketa eta irtenbidea

Egoerak "amorrua, motibazio falta eta ezinegona" sortu du musika eskolako ikasle eta horien senitartekoen artean, eta egoeraren jakitun egin nahi dituzte gainerako lasarteoriatarrek ere: "Egoera hau publiko egin nahi dugu, musika eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren kalitateaz jabetu

**TRONPETAKO
ESKOLARIK GABE
JARRAITZEN DUTE;
UDALAK EZ DU
IRAKASLERIK TOPATU**

daitezen. Herritar guztioi eragiten digu arazo honek, ezin dugu musikaririk gabeko herri bat irudikatu".

Horrela, behin betiko irtenbide bat "exijitu" diote udalari, eta udal ordezkariak gaia kudeatzen ari diren moduarekin ere kritiko agertu dira: "Baliabiderik gabe, irudimenik gabe, ausardiarik gabe eta ardurarik gabe ari dira". Oposizioko alderdiei ere deia luzatu diete: "Kulturako batzordeetan gaia lantzen den heinean, egoeraren berri badute eta ez dugu inolako interesik ezta parte hartzerik ikusi. Jarrera horrek, ordea, ez die gaiarekiko duten ardurarik kentzen".

Babes falta ere sumatu da astearte arratsaldean musika eskola aurrean bildu direnen artean: "Musika eskolako ikasleen guraso gehiago espero genituen gurekin, arazoa ez da tronpetako ikasleena soilik, denok aurkitu gaitezke egoera berean, eta elkarrekin erantzun behar diogu arazo honi".

Kalabazekin, nekatu arte jolastu dira sari edo zirira

Aterpea Merkatarien elkarteak antolatuta, Halloween festa egin dute, Caddie plazan, ostegun arratsaldean

Txintxarri


Halloween festa ospatu du Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak, Atsotakari auzoko Caddie plazan. Bertan elkartu dira sorginak, zonbiak, mamuak, deabruak eta mota guztietako izaki fantastikoak. Goxokiz bete dituzte sakelak eta sabelak, herritarrei *trukua edo traturua* amarrua egin eta gero. Kalabazak eman dizkiote beldurrari, primeran pasa baitute gaztetxoek arratsaldean zehar.




Mozorroak izan dira nagusi. TXINTXARRI

Diputatu eta senatariak aukeratzeko hauteskundeak

Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorrak egingo dira, berriz, igande honetan. Apirilean deitu zituzten lehenengoz bozkak, baina ez dute gobernua eratzetik lortu, eta berriro ere errepikatuko dira orain. 2015. urtetik laugarren hauteskundeak izango dira asteburu honetakoak. Ikusteko dago oraingoan gobernua sortzeko gai izango diren edo ez.



Herritar bat bozka ematen. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Ondoan ez daudenak gogoratu

Hutsune batzuk beti presente badira ere, Domu Santu eguna ezinbestean falta direnak gogoratzeko eguna izaten da. Hilerrietako lasaitasun eta bakardadea apur bat aztoratzen du azaroaren lehenak, falta direnei dauden tokian bisita egiteko ohiturari eusten baitiote askok. Hala izan da, Illarraltzuetan ere. Dozenaka lasarteoriatar zebiltzan eguerdi partean hilobien inguruan.

Asteartera arte itxaron behar, erabakia jakiteko

Laugarren aldiz eskatu du Ibon Fernandez Iradi preso lasarteoriatarrek kartzela zigorraren etetea. Esklerosi anizkoitza behar bezala zaintzeko baliabiderik gabe jarraitzen du kartzelan. Epailak eskaeraren gaineko ebazpena hilaren 12ra atzeratu du, prokuradoreen eskariz

Txintxarri

Prokuradoreak epaileari hala eskatuta, azaroaren 12ra arte atzeratu dute Ibon Fernandez Iradi preso lasarteoriatarren askatasun eskaeraren inguruko ebazpena, asteartea. Erabaki hori gaitzesteko, elkarretaratzea eta manifestazioa egin zuten urriaren 30ean, Okendo plazatik hasita.

Esklerosi anizkoitza diagnostikatu ziotenetik zortzi urte igaro dira, eta zigorraren etetea eskatu duten laugarren aldian izan da azken hau. Orain arteko ebazpen guztietan, ordea, errefusatu egin dute Fernandez Iradiren eskaera, eta hori kontuan hartuta, familia ez

zegoen oso itxaropentsu astearterako ebazpenerako.

Zaintzarik ez

Esklerosi anizkoitza tratatzeko beharrezkoa den zaintzarik gabe jarraitzen du lasarteoriatarrek, Lannemezango kartzelan. Ez ditu neurologoaren beharrezko bisitak, ezta fisioterapia saioak ere. Baina ez hori bakarrik, gaixotasunak garapena izan du, eta lesioak gero eta bortitzagoak dira Fernandez Iradirentzat. Hortik dator presoaren eta bere familiaren azken urteetako etenik gabeko borrokaren arrazoia. Presoak behar duen zaintza bermatu ezin dutela

argudiatzen du kartzelak, eta, horregatik, zigorraren etetea aldarrikatzen dute senide, lagun eta herritarrek.

Espainiaren erantzukizuna

Okendo plazan egindako agerraldian argi azaldu zuten senideek: "Estatuak da presoaren arduradun". Horregatik, erantzukizuna eskatu diote, eta gizartean presoaren gaiarekin dauden akordioa kontutan hartzea ere galdegin diote.

Horrekin batera, gizartearen "aktibazioa" ere ezinbestekoa dela azpimarratu dute: "Egunero bortxatzen dira euskal presoak eta haien senideen giza



Urriaren 30ean mobilizazioa eta manifestazioa egin zuen Sarek. TXINTXARRI

eskubideak, eta gizarteak horren aurrean ere erantzun behar du".

Anbulantzia herriz herri

Larri gaixorik dauden presoaren eskubideen urratze-egoera desagertzea eskatzeko ambulanzia baten laguntzarekin egingo dituzte aldarrikapenak datozen asteetan. Eskualdeko herrietan

ibiliko da ambulanzia: Lasarte-Orian azaroaren 22an, ostirala.

Astelehenean, hilaren 11n, larri gaixorik dauden presoaren etxeratzearen aldeko mobilizazio kanpaina aurkeztuko du Buruntzaldeako Sarek, Okendo plazan, 19:00etan. Azaroaren 19an, berriz, Joseba Azkarragaren hitzaldi bat antolatu dute, kultur etxean.



Bozkatu

ehbildu

Mertxe Aizpurua

Jon Iñarritu


Gorka Elejabarrieta

Erabaki

BAIETZ!


PLAZAN BAZAN

Arrotzak Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, gutxienez 16). Ikusten al dituzu?



Irudi engainariak

Hamahiru zati haueetatik zortzi goiko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Pareak bai! Hemengo elementu gehienak bikoiztuta daude. Batek, ordea, ez du parearik, eta beste bat hiru aldiz ageri da. Zein da bakana eta zein hirukoiztua?





Tatuajea

Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuajeak. Hona hemen bere besoa. Egin iezazkiozu tatuajetxo batzuk.

Mezua


Iruditxo bakoitza dagokion hizkiaz ordeztu eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Hona hemen Maripurtzilen hatz erakuslea. Marraz ezazu zerbait, bere hatz puntan orekan, eta izan dadila ikusgarria, sekulako trebezia baitaizka.



Itzala

Ikusten duzunez, Pelloziri eskolako lanak egiten ari da eta ez dago pozik. Baina hori alde batera utzita, zein ote da bere itzal zuzena?



Bota dadoa!

Zortzi dado hauek tranpati samarrak dira. Lau besterik ez datoz bat irudi zabalduarekin. Zeintzuk dira? Horrela asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu. Berehala konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.



"Ikerketari ekarpena egitea esperientzia polita izan da"

YUNE MORETA ETA LORENA CIRIA ESNE LAGINAK EMAN DITUZTEN AMETAKO BI Zubietako erraustegiaren isurkinen ikerketa proiektuan parte hartu dute bi herritarrek; esne laginak eman dituzte, ToxicoWatch fundazioko kideek laborategian iker ditzaten

Iñigo Gonzalez Sarobe

Zero momentua delakoan gaude: Zubietako erraustegia hondakinak erretzen hasi aurreko egunetan eta hilabeteetan, antza denez, azpiegitura hori martxan jartzea atzeratu egin behar izan duelako GHK partzuergoak, matxura bat tarteko –**BERRIA** egunkariak eman zuten horren berri aurreko astean–. Lanak bukatuta egonda ere, hondakinak kudeatzeko eredu eta azpiegitura horren aurka dauden herritarrek tinko segitzen dute borrokan. "Autodefentsa neurri bat" jarri du martxan Zubietako Lantzen elkarteak berriki: ikertuko ditu erraustegiaren isurkinak, pizten baldin badute, "urtero-urtero", Herbereetako ToxicoWatch fundazioaren eta Eusko Jaurlaritzak akreditatutako enpresa baten laguntzaz.

Irailean zehar hartu dituzte laginak ToxicoWatcheko kide Kirsten Bouman eta Abel Arkenboutek: arrautzak, landareak, lurra eta ura. Zubietan, Usurbilen, Andoain, Hernanin, Donostian, Añorgan, Urnietan eta Lasarte-Orian egin dute lan.

Bueltatu ziren Herbereetara, eta aurkeztu zioten egitasmoa laborategiari. Erantzun "oso ona" jaso zuten bueltan, Zubietako Lantzeneko kide Maider Usabiagak zehaztu duenez. "Esan zieten are interesgarriagoa izan zitekeela proiektua amen esne laginak bilduz gero".

Herriko hemeretzi boluntario

Usabiaga izan da esne-laginen jasotzea bideratu duen kideetako bat. Usurbildarrak dira bera eta Itxaso Muguruza; azken hori ere bideratzailea da. Boluntario bila herri horretan hastea erabaki zuten. "Hasieran, espero genuen hiru bat ama biltzea; hamabi lortu genituen!", zehaztu du Muguruzak. Indarra eman zien horrek eskualdeko beste herri batzuetan saiatzeko: Lasarte-Orian eta Andoain. Hemeretzi eta zortzi pertsona animatu dira, hurrenez hurren. Usurbilgo hamabiekin, 39. "Urriean egin dugu dena, bizpahiru astetan: intentsoa izan da, baina oso pozik gaude; bikain erantzun dute amek", zehaztu du Muguruzak.

Herriko edoskitze taldearekin harremanetan jarri ziren Usabiaga eta Muguruza. Antolatu zuten aurkezpen bat, ekimenaren berri emateko. Azalpenak entzuten ari zen bitartean erabaki zuen Lorena Ciriak parte hartuko zuela: "Beldurra eta ezinegona sentitzen dut erraustegiarekiko; ederra izan da nire ekarpentxo egin ahal izatea, jakin ahal izateko zenbateraino izan daitekeen kutsagarria". Berak eman zien proiektuaren berri edoskitze taldeko gainontzeko amei, Whatsapp bidez; talde bat daukate aplikazio horretan. "Asko lagundu digu Lorenak ekimena zabaltzen", azpimarratu dute bi bideratzaileek.

Mezuak irakurri eta segituan animatu zen parte hartzera Yune Moreta. "Ez nuen bi aldiz pentsatu". Uste du "garrantzitsua" dela bakoitzak ahal duen eran parte hartzea: "Nahiz eta jende asko kontrari egon, erraustegia egin dute; azpiegitura hor dago, baina laginak ikertu eta geroko datuak eskuetan edukitzea garrantzitsua da".



Yune Moreta eta Lorena Ciri lasarteoriatarak dira erraustetaren isurkinen ikerketa

Zubietako Lantzenen ikerketa proiektuaren berri izan eta berehala, honakoa galdetu zuen Ciriak: "Eta honekin, itxiko al dute erraustegia?". Usabiagak eta Muguruzak segituan erantzun dute, gertakizun hori oroitzuz: "Oxala!". Moretak azpimarratu du azpiegitura hori hondakinak erretzen hasi aurretik datuak edukitzearen balioa: "Erabakitzen duzu zure haurrari bularra ematea uste duzulako hori dela osasuntsuena, baina arnasten dugun airea ez bada garbia... Jakin behar dugu nola eragin dezaketen erraustegiaren isurkinek gure esnearen kalitatean, eragina dutela frogatzen bada".

Ikerketaren balioa nabarmendu dute Usabiagak eta Muguruzak: "Erraustegi bat martxan jarri aurreko datuak aztertu eta bildu

ahalko ditugu; mota horretako ikerketa proiekturik ez da egin lehenago Europa ekialdean". Zehaztu dute ikerketaren emaitzak jasotzean aurkeztuko dituztela datuak, eta "urtero" elikatu beharko dutela egitasmoa: lagin, neurketa eta emaile berriak beharko dituzte. Amen kasuan, aurtan parte hartu dutenek egin ahalko dute hori berriro, esnea baldin badaukate. "Aukera edukiz gero, errepikatuko dugu", esan dute Ciriak eta Moretak.

Esne laginak eta inkestak

Urriko azkeneko astean jaso zituzten bideratzaileek Lasarte-Oriako hemeretzi ama horien esne laginak. "Asteartean azaldu genien esnea nola atera, eta lagina gordetzeko tutuak eman; hurrengo egunean jaso genituen", gogoratu du Muguruzak. Asteon bidaliko



B-01



B-02



B-03



B-04



B-05



B-06



B-07



B-08



B-09



B-10



independentean parte hartu duten herriko hemeretzi ametako bi. TXINTXARRI

dituzte Herbereetara, izoztuta –hogei gradu zero azpitik–. Ciriak eta Moretak oroitu dute astearte gau horretan tutua bete izan behar izan zuteneko. "Eskatzen zuten kantitatea ez zen gehiegizkoa: hamar mililitro. Horrek lasaitu egin zituen zenbait boluntario, ohituta ez dauden amentzat ez delako erraza esnea ateratzea". Esnea ateratzeko tresnen bidez bete zituzten tutuak bi herritarrek. "Maiatzetik ez nuen erabiltzen", esan du Moretak. Egun horretan "bero asko" egin zuela oroitu du, eta jelak jarri zizkiola laginari, desizoztuko ote zen beldurrez.

Tutuak eman zituzten egunean, inkesta bat bete zuten ama guztiek. Galdetegiak ere ToxicWatch fundaziokoek bidali zizkieten bideratzaileei. "Galdera ugari planteatu dituzte: kontsumitzen ote dituzten zonaldeko elikagaiak;

errepide edo industria-gune baten ondoan bizi diren edo ez; erabiltzen al dituzten produktu sintetikoak, kremak... Ez da izan soilik amen esnea biltzea, bakoitzaren bizimoduari buruz hausnartzeko bide eman du ariketak", zehaztu du Usabiagak. Inkestetan jasotako erantzunekin eta esne laginekin, ikerlariak profil desberdinak sortuko dituzte, horien jarraipena egiteko urtero. "Erraustegiaren isurkinek alda ditzakete datuak; gure bizitza ohiturek ere bai".

Azken gai horri buruz ere luze eta zabal hitz egin dute amek eta

LASARTE-ORIAKO, USURBILGO ETA ANDOINGO 39 AMEK PARTE HARTU DUTE EGITASMOAN

bideratzaileek, TXINTXARRIekin izandako solasaldian. Adibidez, birziklatzeari buruz. "Ezinbestekoa da hori egitea, nire iritziz", adierazi du Moretak. "Gure haurrak duela gutxi etorri dira mundura; hazten doazen heinean, ikasi behar dute hori dela euren etxea, eta zaindu egin behar dutela". Ciriak: "Nire semeari erakutsiko diot birziklatzen, bai edo bai". *Ez naiz ahaleginduko nire esku dagoena egiten mundua zaintzeko; hemendik urte batzuetara hemen egongo ez naizenez...* Moreta bere onetik ateratzen du sarritan entzuten duen esaldi horrek. "Ez dut ulertzen". Usabiagak eta Muguruzak ententitzen ez duten gauzetako bat da Lasarte-Oriako birziklapen-tasa baxua –2018ko datuen arabera, %46,63koa da–: "Oso gertu daukazue erraustegia; harritzekoa da". Birziklatzearena, besteak beste, "ohitura eta kultura kontua" dela uste dute. Atez ateko sistema daukate Usurbilen.

Erraustegia, "inposizioa"

"Gauza asko aukera ditzaket nire seme-alaben mesederako, baina ez zer arnasten duten. Mingarria da hori niretzat; erraustegia jartzearena imposizioa da". Garbi hitz egin du Usabiagak. Ttakuneara etorri den beste bideratzaileak, Itxaso Muguruzak, honakoa gehitu du: "Zure onena eman nahi diozu haurrari, baina ez dakizu hala izango den. Martxan jartzen badute erraustegia eta frogatzen bada isurkinek eragina dutela esnearen kalitatean...".

Zubieta Lantzenek abiatu duen ikerketa proiektu independenteak neurtuko ditu erraustegiak isurtzen dituen metal astunak eta dioxinak nola metatzen diren bizirik dauden elementuetan. Eta nola neurtuko ditu Gipuzkoako Diputazioak emisio horiek? "Badago sistema bat, AMESA izenekoa, neurtzen dituena isurkin horiek kadentzia konkretu batekin; laginketa automatikoak egingo lituzke erraustegiaren tximinietan", jakinarazi du Usabiagak. "Oso interesgarriak dira, eta datu argigarriak eman

ditzake; Gipuzkoako Foru Aldundiak horren argi badu erraustegiak ez duela kutsatzen, hor dauka tresna. Borondatea behar da egiteko, hori bai". Diputazioak aukera hori "noizbait" aipatu izan duela oroitu du Usabiagak. "Galdu egin zen gero".

Borrokan jarraitzeko "grina"

Usabiagak eta Muguruzak nabarmendu dute esne laginen jasotzean parte hartu duten amek "borrokan jarraitzeko grina eta gogoa" erakutsi dituztela. "Urte mordo daramagu erraustegiaren aferarekin; nekatuta egon arren, jarraitu behar dugu", adierazi du Usabiagak. Muguruza: "Piztear dago [erraustegia], baina ikusi ditugu 39 ama horiek, euren haurtxoekin besoetan; haientzako egin dute hau. Indar handia eman digu". Biek "asko" ikasi dute egitasmoa burutu bitartean.

Euren haurrei bularra ematea ere izan da ikasketa prozesu bat Yune Moreta eta Lorena Ciriarentzat. Biek aitortu dute lagundu diela herriko edoskitze taldean egoteak. "Garrantzitsua da ikustea ez zaudela bakarrik; beste ama batzuek ere izan igaro dituztela fase desberdinak", adierazi du Ciriak. Hori uste du Moretak ere: "Ikusten duzu badakitelat zertaz hitz egiten duten; babesa ematen dizu horrek". Ciriak da orain taldean denbora gehien daramanetako bat; Moreta, aldiz, lehen baino gutxiagotan joaten da, lanean hasi delako eta haurra eskolara doalako. Dena dela, batzuetan biltzen da taldekideekin, kafe baten bueltan. Hemendik denbora batera, ikerketaren datuak eskuetan, eta egin duten ekarpenari esker, hitz egin ahalko dute erraustegiaren isurkinek esnearen kalitatean izan dezakeen eraginari buruz. Pizten badute.

ASTEON BIDALIKO DITU ZUBIETA LANTZENEK ESNE LAGINAK, IZOZTUTA, HERBEREETARA




EAMren logoa. ERRAUS. AJURK. MUGI.

13.000 eurotik gora bildu dira ikerketarako

"Ikerketa proiektua garestia da, baina merezi duela uste dugu", nabarmendu du Zubieta Lantzeneko kide Maider Usabiagak. Irailean crowdfunding kanpaina bat abiatu zuen Erraustetaren Aurkako Mugimenduak –Gipuzkoa Zutik, Donostia Bizirik, Hernanin Zero Zabor, Usurbil Zero Zabor, Andoingo Ipar Haizea eta Lasarte-Oriako Aire Garbia plataformek osatzen dute–. Hasierako helburua zen 13.000 euro biltzea; lortu dute, 13.550etik gora baitauzkate honezkerok. Horri lotuta, Aire Garbiak postu bat jarri zuen urriaren 27an, igandea, diru bilketa horretan laguntze aldera.

Dena dela, amen esne laginak ikerketa egingo du ikerketaren kostu totala, eta Zubieta Lantzenek gogoratu du posible dela oraindik ekarpenak egitea, kontu korrante honetan: ES45 2095 5069 06 1064132086. "Esan dezakegu lagin horiek aztertze adina diru egongo dela; biltzen dugun kopuruaren arabera izango da ikerketa horren xehetasun maila", jakinarazi du Usabiagak. Ikerketa "independentea" dela eta "borondate onenarekin" egingo dutela gogorazi du Zubieta Lantzeneko kideak.



Uste baino denboraldi hobe egin du Mansok

Aurreikusitako helburuak bete ditu Aitor Manso amaitu berri duen denboraldian; Gaztela eta Leongo Txapelketan lehiatu da, eta emaitzek eman diote egindako lanari fruitua. Hasiera kaxkarra izan arren, hirugarren postuan amaitu du

Maddi Zaldua

Pasa den denboraldian Gaztela eta Leongo Txapelketa jokatzeko zen Aitor Manso (Lasarte-Oria, 2000) lasarteoriatarren helburua. Eta bertan lehiatzea bakarrik ez du lortu; sailkapenean hirugarren postuan amaitu du. Baditu pozik egoteko arrazoiak. Txapelketa horretan jokaturako lasterketek osatu dute gaztearen denboraldia, eta aitortu du, "uste baino hobeto" joan dela.

Abuztu aldean ekin zioten Gaztela eta Leongo Txapelketari, eta orain gutxi amaitu dute. Lau lasterketa izan dira guztira, eta horietatik hirutan lehenengo hiru postutan sailkatzea lortu du; batean bigarren postuan amaitu zuen, eta beste bietan, berriz, hirugarren. Guztira, hamabost pilotu lehiatu dira.

Ez zuen, ordea, nahi bezala hasi denboraldia Lasarte-Oriako gazteak. Gutxi entrenatuta ekin zion sasoiari, eta horrek eragina

izan zuela aitortu dio TXINTXARRI. Baina jakin izan du irtenbide egokia bilatzen; entrenamendu saioetan gogoz aritu eta berehala hasi zen emaitza hobeak pilatzen.

Hori izan da denboraldiko ardatz nagusia: gogor entrenatzea. Baina ez hori bakarrik. Kartingean, berebiziko garrantzia du pilotuaren prestakuntzak, baina autoak ere ezin du hutsik egin. "Pilotuaren eta autoaren artean gehieneko pisu bat eman behar da, bestela, ondorio kaltegarriak izan daitezke; nik guztira, 175kg pisua batzen dut".

Ezin babeslerik lortu

Saiatu den arren, ezinezkoa izan zaio Mansori denboraldi honetarako babesleak lortzea. Arrazoiengatik galdetuta, erraz erantzun du pilotuak: "Kartinga baino lehen, beste kirol batzuk babesten dira". Baina ez hori bakarrik. Euskal Herrian

BABESLEAK LORTZEKO AHALEGINAK HUTS EGIN DIO MOMENTURA ARTE

ezinezkoa da kartingean lehiatzea. Entrenatzeraz ere Burgosera joan behar du lasarteoriatarak, eta lehiaketak ere Espainian izaten dira. Hori dela-eta, babesle euskaldunek Euskal Herrian ikusiko diren kirolak babestea nahiago dute, eta horrek zaildu egin du bilaketa.

Burgosera joan behar du lehiaketetarako prestaketa saioak egitera: "Villarcayon aritzen naiz, eta, gutxienez, hilabetean bi aldiz joaten naiz, bertara entrenamendu saioak egitera". Aukera hori, ordea, ezinbestean egin behar du kirolarekin jarraitu ahal izateko. Etxetik gertuago,



Aitaren babes eta laguntza guztia du Aitor Mansok, kartingean hasi zenetik. AITOR MANSO



Aurtengo denboraldiko proba batean ateratako argazkia. AITOR MANSO

Olabarrian, egon badago kartingerako zirkuitu bat, baina "oso egoera kaxkarrean" dagoenez, ezinezkoa da bertan aritzea. "Zirkuituko zorua zuloz

beteta dago, ez dute asfaltatu nahi eta bertan alokatutako kartekin aritzeko agian balio du, baina ez lehiaketetan aritzeko".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Goierri Gorri FK - Ostadar SKT Larunbata. 19:30. Altamira, Ordizian.
ERREGIONALEN GORENGOA
Ostadar SKT - Astigarragako Mundarro Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA
Ostadar SKT B - Urnieta KE Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
Intxurre KKE - Ostadar SKT A Larunbata. 15:30. Elorri, Alegian.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Billabona KE Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
KADETEEN 1. MAILA
Lazkao KE B - Ostadar SKT A Larunbata. 12:00. Arizti handi, Lazkao.
Ostadar SKT B - Intxurre KKE B Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.
Intxaundi KE A - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Cesar Benito, Donostian.

INFANTILEN OHOREZKO MAILA
Danena KE - Ostadar SKT Larunbata. 11:00. Elbarrena, Zizurkilan.
INFANTILEN 1. MAILA
Udarregi Usurbil FT A - Ostadar SKT B Larunbata. 09:30. Harane, Usurbilen.
Ostadar SKT A - Texas Lasartearra Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
SENIORRAK, 1. MAILA
Eguzki Aldaz H.K. - Gaintxu AFT Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
SENIOR 2. MAILA
Goierri KE - Eguzki ISU Leihoak Larunbata. 16:00. Aldiri kir., Urretxun.
JUBENILAK
Zarautz KE - Eguzki 2KN Igandea. 09:00. Antonianos kir., Zarautzen.
Eguzki Balerdi Harategia - Goierri KE Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kir.
SASKIBALOA
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA
Antigua Luberrri KE A - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Benta Berri kir., Donostian

SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA
Zalburdi Debasket - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Debako kiroldegian.
JUNIOR ERRENDIMENDUA
Ostadar SKT - Zast Zarautz ZKE Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR PARTAIDETZA
Ostadar SKT - TAKE Redline Mekanika Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
KADETE ERRENDIMENDUA
Easo Araxes - Ostadar SKT Igandea 12:00. Benta Berri kir., Donostian
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - No+Vello ISB Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir.
INFANTIL HAUNDI
Ostadar SKT Haundi - Eliko ISB Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
INFANTIL TXIKI
BKL Larratiz Txiki - Ostadar SKT Txiki Igandea. 09:00. Antizar kir., Beasainen.

PILOTA
RPROFESIONALA, BINAKAKOA
Urrutikoetxea eta Ibai Zabala - Arteaga II eta Albisu Ostirala. 19:30. Auzoeta pil., Ataunen.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 1. MAILA, JAITSIERA
Behar Zana 2 - Intza Larunbata. 12:00. Behar Zana, Villabonan.
GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. KADETEA
Intza - Alde Zaharra 1 Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
JUDO
ESPAINIAKO KOPA
LOKEKO judoka juniorrak Espainiako kopako jardunaldian lehiatuko dira. Larunbata. 09:30. Gijon, Asturiasen
IGERIKETA
NEGUKO LIGA
Ligako bigarren jardunaldia izango dute Buruntzaldea IKTKo Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariek. Larunbata. 16:00. Majori, Ordizian

ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Getxo Artea - Babyauto Zarautz Larunbata. 16:30. Fadura, Getxon.
EUSKAL LIGA
Iruña - Babyauto ZRT Beltzak Igandea. 11:30. UPNA, Iruñean.
16 URTEZ AZPIKOAK
Mutriku/Zarautz/Beltzak - La Unica B Larunbata. 14:15. San Miguel, Mutrikun.
14 URTEZ AZPIKOAK
Arrasate Txingudi - Babyauto ZRT Beltzak Larunbata. 10:30. Mojategi, Arrasaten.
10 ETA 12 URTEZ AZPIKOAK
Jardunaldian izango dute Babyauto ZRT Beltzak taldeko jokalariek gazteek. Igandea. 10:15. Michelin kirol gunean.
LASTERKETAK
BEHOBIA DONOSTIA
180 herritarrek Behobia eta Donostia arteko 20 kilometrotako proban parte hartuko dute. Igandea. 10:15. Behobia, Irunen.



Eñaut Buiza, ezkerreko argazkian eta Izar Beldarrain, eskuineko irudian, finaleran jokoan. EUSKADIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Zilarrezko dominak Lasarte-Oriara

Azaroko zubian, infantil eta kadete mailako Euskadi eta Nafarroako lurraldeen selekzioen arteko txapelketak jokatu dira Balmasedan eta Laudion. Lasarte-Oriako jokalaria eta prestatzaileak izan dira Gipuzkoako selekzioetan

Txintxarri

Gipuzkoako selekzioak ezin izan zuen Bizkaia garaitu infantil, zein kadete mailako Euskadi eta Nafarroako lurraldeen selekzioen arteko txapelketetan. Gipuzkoarrak eta bizkaitarrak iritsi ziren lau finalerara, baina final batean ere ezin izan zuten gipuzkoarrek sari nagusia eskuratu.

Gipuzkoako selekzioaren izenean lau herritar lehiatu ziren.

Kadete mailan, Eñaut Buiza jokalaria, Xabi Altuna entrenatzailea eta Endika Marrahi bigarren entrenatzailea izan ziren; Izar Beldarrain, berriz, infantil mailan aritu zen.

Esperientzia ezin borobildu

Lehen esperientzia izan da Gipuzkoako selekzioko lehen entrenatzaile modura Xabi Altunarentzat. "Iaz bigarren entrenatzaile egon nintzen: Ander

Otaegi herritarra zen buru eta Endika eta biok laguntzaile lanak egin genituen".

Edozein entrenatzailearentzat hautatzaile izatea aukera polita dela aitortu du. "Zure taldeko jokalariekin entrenatu ohi zara eta bi hilabetez beste taldeetako gazteak ere zure eskura jartzea aukera ona da. Gainera, oso erraza izan da haiekin lan egitea".

Pena bakarra du Altunak, ordea. "Lastima da finala ez

irabazi izana. Finkatutako helburuak bete genituen. Ahal genuen onena eman genuen partida bakoitzean".

Balmasedan jokatu zen kadete mailako txapelketa eta Gipuzkoako Selektzioak Nafarroa izan zuen aurrez aurre finalerdian. Erraz nagusitu zen Altunaren taldea, 111-43. "Espainiako txapelketa prestatzen ari dira. Bi hilabete dituzte aurretik eta hori nabari da", jakitera eman du Altunak.

Gipuzkoako jokalariek ez zioten aukerarik eman Nafarroako taldeari. "Tentsioa eta intentsitatea eman genion jokoari. Defentsan lan ona egin genuen. Hasieratik ongi bideratu genuen partida."

Bizkaiaren aurkako finala ordea, borrokatuagoa izan zen, 74-65. "Bizkaia talde indartsua da. Partida polita egin genuen. Oso lehiatua izan zen eta azken minutuetan erabaki zen", adierazi du Altunak.

Aukerarik ez

Nahiz eta infantilak Laudion lehiatu, antzerako egoera bizi izan zuten. Nafarroa garaitu zuten finalerdian, 62-47. Bestelakoa izan zen finala, Bizkaia 93-54 gailendu baitzen.

Partidako lehen bi minutuetan bi taldeek baloia mugitu zuten kantxako alde batetik bestera. Gipuzkoarrek zorte gehiago izan zuten saski azpian eta 2-7 aurreratu ziren.

Baina hori izan zen aurretik egon ziren momentu bakarra. Bizkaitarrek eskumuturra askatu eta 11-3ko partziala egin zuten. Hiruko jaurtiketek min handia

egin zioten Gipuzkoari eta 27-15 amaitu zuten lehen laurdena.

Gipuzkoak defentsa lana hobetu zuen eta baloi gutxiago galtzen saiatu zen bigarren laurdenean. Horrela, atsedenaren ostean, hamar puntuko tartearrekin (33-23) hasi zen lehia. Joko dinamikoa erakutsi zuten bi taldeek, baina ez zuten saririk lortzen. Bizkaiak apurtu zuen dinamika hiruko bi saskiratze eginda eta hortik aurrera Gipuzkoarrek ezin izan zituzten geratu.

Euskadiko selekzioa

Euskadiko federazioari maila horietan 2020ko Espainiako Txapelketan parte hartuko duten jokalaria ikuskatu eta aukeratzeko balio izan dio txapelketak. Kirolarientzat saria izaten da horrelako izendapena eta oraingoan, Eñaut Buiza herritarrek izango du ohorea.

Xabier Altuna bere entrenatzailea izan da Gipuzkoako selekzioan eta hitz onak besterik ez ditu herriko jokalarientzat. "Buiza oso garrantzitsua da bere taldean, Eason. Fisikoki errespetua jartzen du, defentsan ongi dabil eta saki azpian ere. Asko gustatu zitzaigun eta horregatik deitu genuen".

Txapelketan egindako lana ere azpimarratu du: "Nafarroaren aurka defentsan paper garrantzitsua egin zuen. Finalean zailtasunak izan zituen eta falta dezentze egin zituen. Baina ongi ibili zen ere".

Buizak ez du atsedetik izango asteburu honetan. Easo taldean izan dezakeen partidaz gain, igandean, Espainiako txapelketa prestatzeko lehen saioa izango baitu Eibarreko Lan Unibertsitatean.

33.000 korrikalarien langa gainditu da mendeurrenean

Igandean, Behobia-Donostia lasterketako 55. edizioa izango da. 180 herritar izango dira irteera puntuan

Txintxarri

Azaroaren 10a, igandea, egun berezia izango da Behobia-Donostia lasterketarentzat. 100 urte beteko ditu hoge kilometroko lasterketak. Orduan ez zen ohikoa distantzia horretako lasterketarik lehiatzea eta parte hartzaile taldea urria zen, 22. Lasterketa herrikoia handitzen joan da eta Gipuzkoako mugaz kanpotik ezaguna egin da. Hori dela eta,

aurten, 33.000 korrikalari baino gehiago izango dira Behobiako irteeran; horietako 180 Lasarte-Oriakoak izango dira.

Lasterketa nagusia 10:15ean hasiko da eta eliteko emakumeek bereizitako irteera izango dute. Bertan izango da azken hiru urteetan garaile eta lasterketako errekorra duen Aroa Merino. Harekin batera, 8.000 emakume baino gehiago izango dira parte

hartzen. Lasterketak 50/50/25 egitasmoa du martxan eta 2025ean korrikalarien erdia emakumeak izatea du helburu. Aurten korrikalarien %25,7a da.

Gizonezkoen mailan, iazko podiumean izan ziren Iraitz Arrospide eta Ivan Fernandez egongo dira nor baino nor lehen postua eskuratzeko.

Baina ez dira lehenak izango irteera puntuan. Gurgildun aulkiko lasterkariak 09:45ean aterako dira eta patinatzaileak, 09:40ean.


Etxeko txikiek ere, larunbatean, izango dute korrika egiteko aukera. Behobia Txikia arratsaldeko 15:00etatik aurrera izango da, Donostiako Anoeta kirol gunean. Hauteskundeak

direla eta, Behobia Gaztea ezingo da jokatu.

Azken prestaketak

Oraindik orduak geratzen dira Behobia-Donostiaz goatzeko, baina Lasarte-Oriako korrikalariak azken prestaketak egiten daude. Batzuk azken lasterketetaz baliatu dira Behobiarako fin iristeko.

Raul Gomez Margallok eta Gorka Gilek, esate baterako, Antxintxika proba lehiatu zuten. Gomez Margallo laugarren izan zen sailkapen orokorrean, baina beterano mialko irabazle izan zen. Gilek berriz, beterano mailako bigarren postua eskuratu zuen.



Gomez Margallo. GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

Bestalde, Lokiz mendilerroan Basajaun Trail Race probako 23 km lasterketan parte hartu zuten Iker Ortegak (2:57:54) eta Xabier Otxoa de Aldak (03:01:35).



Buruntzaldea IKT klubeko igerilariek gogotsu eta ilusioz ekin diote neguko denboraldiari. BURUNTZALDEA IKT

Neguko denboraldia hasi du Buruntzaldea IKTk

Denboraldiko lehen hitzorduak Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan jokatu dituzte infantilek, juniorrek eta absolutuek; alebinak, aldiz, Hernaniko kiroldegian lehiatu dira. Hasiera ona eman diote denek 2019-2020 sasoiari

Txintxarri

Denboraldiko lehen jardunaldia izateko, emaitza txukunak lortu dituzte infantil mailako igerilari gazteek. Buruntzaldea IKTko hemeretzi igerilarik parte hartu zuten, urriaren 26an, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan.

Entrenamendua izaten da ikasturte eta denboraldi hasierako jardueraren funtsa, baina igerilari parte hartzaileek jarritako gogoez emaitza ezin hobekak ekarri zituen. Borja Apeztegia entrenatzaileak jakinarazi du, guztira, 24 marka pertsonal hobetu dituztela larunbateko jardunean. Baina ez hori bakarrik; Gipuzkoako eta Euskal Herriko Txapelketarako txartelak ere lortu dituzte. Infantilen denboraldi hasierako helburua hori izaten da; bi txapelketa nagusi horietarako gutxiengoak denborak lortzen joatea.

Udako txapelketarako gutxiengo denborak ere lortu dituzte. Nerea Irazuk eta June Lopezek, Gipuzkoako eta Euskal Herriko

udarako gutxiengoak 200 bizkar proban. Horiakin batera, Saioa Elolak, proba berean, Gipuzkoako udako gutxiengoak lortu du.

Nora Imazek, berriz, 200 lau estilotan ere Gipuzkoako zein Euskal Herriko udakorako puntuak gehitu ditu. Garazi Etxeberriak eta Izaro Audikanak, estilo berean, Gipuzkoako udakorako batu pilatu dituzte.

Azkenik, Nerea Irazuk, June Lopezek eta Saioa Elolak, 100 metro libre modalitatean, Gipuzkoako udako gutxiengoak lortu dituzte, eta Juel Lopezek ere frogara bererako batu dituzte, 200 metro librean.

Asteburu honetan Neguko jardunaldiko bigarren jardunaldia jokatu dute, eta 400 lau estilo modalitatearen bidez, Neguko Txapelketarako gutxiengoak lortzeko aukera izango dute.

Junior eta absolutuak

Denboraldiko lehen saioa izanik, "erritmo falta" nabaritu zela aitortu du Borja Apeztegia

entrenatzaileak, baina, hala eta guztiz ere, probetan "oso txukun" aritu zirela parte hartu zuten igerilariak.

Parte hartzaileen artean, izan da marka pertsonala hobetzea lortu duenik; Yaiza Martinezek 100 metro librean, Aimar Sukunzak 100 metro tximeletan, Nerea Santosek 200 metro bizkar frogan eta Jon del Riok 100 metro librekoan eta 100 eta 200 metro bizkarrekoetan.

Alebinak ere "txukun" aritu ziren Hernanin, larunbatean. Buruntzaldea IKT klubeko hamalau igerilarik parte hartu zuten, eta 400 metro librean eta 100 metro bizkar frogetan neurtu behar izan zituzten indarrak. "Gazteak fisikoki nola dauden jardunaldiak, baita bular estiloko ikaskuntza nola daramaten aztertzeke ere".

Gizonezkoen artean, Jon Pelayo izan zen azkarrena 400 metro librean, baita 100 metro bularrean ere.

Intzako 1. mailako senior bikoteak, maila jaitsiera jokoan

Intzako bikoteak Behar Zanaren aurka jokatu du bihar. Bigarren mailako seniorrak mailari eutsi dio

Txintxarri

Jon Pello Artetxe eta Mikel Elola bikoteak larunbat goizean partida erabakiorra dute Behar Zanaren bikotearen aurka. Jokoan, Gipuzkoako txapelketako 1. mailari eustea.

Intzako bikoteak Gipuzkoako txapelketako lehen fasea zazpigarren postuan amaitu du eta promozioa jokatu beharko du. A multzoko seigarren sailkatua, Villabonako Behar Zana izango du aurrez aurre.

Azken partidetak bolada txarra alde batera utzi nahi du Lasarte-Oriako bikoteak. Sei partida galdu ditu jarraian. Eta urteko helburuari eutsi nahi dio, 1. mailan mantentzeko.

Ez da hain erraza izango, ordea. Lasarteoriatarrek ezaguna dute Behar Zanak Lizaso eta Urbieta bikotea. Larunbateko partidari nor baino nor egongo dira bigarrenez. Lehenengoan Artetxe eta Elolak 22-21 irabazi zuten. Larunbatean, gogoz jokatu dute, baina partida borrokatua espero dute arerioaren etxean.

Bigarren mailan mantendu

Bigarren mailako bikoteak, aldiz, ez du horrelako estuasunik



Artetxe-Elola bikotea. TXINTXARRI

biziko. Bere multzoko bosgarren sailkatu da eta urteko helburuari eutsi dio Haritz Urkia eta Gaizka Iruretagoienak osatutako bikoteak.

Txapelketa hasieran igoera posible ikusten zuten arren, azken lau partidak galdu eta promozio postuetatik gertu amaitu du lehiaketa.

Bestalde, Intzako bigarren mailako kadetea txapelketan lehiari ari da buru-belarri. Ez dute partidarik irabazi, baina lehen urtea dute kadete mailan. Eskuko arazoak tarteko, maila berrira moldatzen ari dira.




OSTADAR SKT


Urdin-beltz koloreak, Lesbosen

Greziako Lesbos irlan bizi diren errefuxiatuek Ostadar SKTk bidalitako kirol arropa eta materiala jaso dute. Bertan jarraitzen du Miren Bardaji herritarrek. Yoga eta akroyoga klaseak eskaintzen ditu *One Happy Family* komunitatean. Uharteko kanpalekuan bizi diren errefuxiatu ugari parte hartzen dute bertan antolatzen diren ekintzetan; kirolarekin zerikusia dute horietako askok. Hemendik aurrera, urdin-beltz koloredun kamisetekin ariko dira.

KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Urko
Zorionak Urko. Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Muxuak.



Mario
Zorionak txapeldun!! 5 urte dagoeneko!! Asko maite zaitugu. Muxuak. Zure familia



Amaier
Zorionak guapisima, gure etxeko alaitasuna zara. Asko maite zaitugu, Ekain, aitatxo eta amatxoren partetik.



Adrian
Zorionak parrilero! Elkarte gastronomikoetako parrilek erreklamatzeko zaituzte, eta zure lankide ohiek ere bai! Noiz ospatuko ditugu 34ak? Besarkada estu bat Ttakuneko lagunaren partetik!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 08




Larunbata, 09




Igandea, 10




Astelehena, 11



Asteartea, 12



Asteazkena, 13



Osteguna, 14



JAIOTAKOAK

Yerai Joaquín Felix. Urriaren 31n.
Pierre Amets Muñoz Ancajima. Urriaren 30ean.

HILDAKOAK

Jose Rey Rivadas. Azaroaren 6an.
Paquita Carro Caamaño. Azaroaren 4an.
Maria Teresa Gantxegi Lizarralde. Azaroaren 4an.
Antonio Jose Nieto Zuheros. Azaroaren 4an.
Juan Ochandorena Lizarraga. Azaroaren 2an.
Obdulia Alvarez Llanera. Urriaren 31n.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 08	ACHA-ORBEA	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 09	LASA	ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 10	LASA	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 11	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 12	GANDARIAS-URIBE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 13	ORUE	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 14	DE MIGUEL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Afari solidarioa

Lasarte-Oriako misio taldeak Adsis komunitateak Togoko Lome hiriburuan duen harrera etxearen aldeko afari solidarioa egingo du azaroaren 16an, larunbata 20:30etik aurrera. Harrera etxean, iparraldetik unibertsitatera doazen gazteak hartzen dituzte, eta haien ikasketak egiteko baliabideak eskaintzen dizkiete. Helburua, haien herrialdea garatzen lagun dezaten da. Afariaz gozatzeko 10 euro ordaindu behar da.

Kinto afaria 1962

1962an jaiotako kinto afaria azaroak 16an izango da, Badaran-en dagoen David Moreno bodegan (Errioxa). Izena emateko azken eguna azaroak 11 da. Harremanetarako 646 274 376 telefono zenbakira deitu eta Bearekin hitz egin behar da.

Kinto afaria 1963

1963ko kintoen afarirako deialdia. Afaria azaroaren 23an izango da, larunbata. Izena emateko azken eguna, berriz, azaroaren 17a, igandea. Afariak 40 euro balio ditu. Kutzako zenbakia: ES83 2095 5096 9091 1930 9352.

Kinto afaria 1969

1969ko kintoen afaria antolatu nahian ari dira, eta urte horretan jaiotakoei deia luzatu nahi diete animatu eta antolakuntzan laguntzera. Harremanetarako telefono zenbakia: 695 707 499 (Marijo).

SUDOKUA

8	6	3			1	4		
				4	7		6	3
			3	6		5	1	
9	1	5	6				4	
			5	9	4	1	3	6
4		6	1			9		
6	7		4	2		3		9
			7	1	9	6		4
5	9	4			6		2	

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAINITZA
Pertsona bat behar da bi lagunentzat janaria prestatu eta garbiketa egiteko. Astelehenetik ostiralera, 06:00etatik 09:00etara. Harremanetarako zenbakia, 943 373 706.

SALEROSKETA

SALDU
HYMER Exsis SG autokarabana txikia saltzen dut. Lau plaza bidaizteko eta lo egiteko. Zerbitzu guztiekin hornitua. 656 760 109.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iraiti Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Iñierri Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Erakusketa. Zurmailu elkarteko kideek urtean zehar egindako lanak erakutsiko dituzte Antonio Mercero guneko erakusketa gelan. Orduak eta orduak egin dituzte gubia, trintxa, hustugailu eta maza artean erakusketako lanak erakutsi ahal izateko. Koadroak, kutxak, makilak, esekigailuak, argizaiolak... denetarik dago ikusgai. Lasarteoriatarrek azaroaren 17ra arte ikusi ahal izango dute erakusketa. Antonio Mercero gunea, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbata eta igandeak, 12:00etatik 14:00etara.



LASARTE-ORIA Diska aurkezpena. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Bizi dantza* ikuskizuneko abestiak jasotzen dituen diska-liburu berria aurkeztuko dute. *Katu bi, Herridantzari, Barrua Dantzan, Ukuiluan Planto, Astoaren Legatza...* musika eta dantza izango dira nagusi, izan ere, euskal dantzak oinarri ditu pailazo bihurrien lan berriak. Jalgi Kafe Antzokia, gaur, ostirala, 17:00etan.

OSTIRALA 08

URNIETA Ipuin kontaketa

Marisa Taberero ipuin kontalariak haurrentzako saioa eskainiko du. Ludoteka, 17:30ean.

USURBIL Dantza

Orbel jauzia, dantza emanaldia eskainiko du Orbeli Dantza Taldeak. Sarrera, 3 euro. Sarrerak, aurrez Bordabon, Txiristran, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan eskuratu daitezke. Noaua!ko kulturaldiko ekimena izanik, bazkideek 1 eurotan erosi ahal izango dute aldizkariako egoitzan. Sutegi auditorioa, 19:30ean.

ANDOAIN Ikuskizuna

Txan Magoak *Inpernutik datorren artista bat naiz ni* helduentzako ikuskizuna eskainiko du Gaztebearen urteurrenean. Gaztetxea, 22:30ean.

LARUNBATA 09

LASARTE-ORIA Antzerkia

Ezezagunok antzerki elkarteak *La paz y otras lunas* antzezlan eskainiko du. Aristofanes filosofoaren *La paz* lanean oinarritzen da eta gizarteari kritika egiten dio. Ezezagunok antzerki elkarte aniztasun funtzionala duten pertsoez osatutako taldea da. Sarrera, 3 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Musika

Punk oi! gauaz gozatuko dute punk zaletuek Orreaga 778, Sindy Berbenas eta Cuero taldeen eskutik. Jalgi Kafe Antzokia, 21:00etatik aurrera.

HERNANI Antzerkia

5 urtera arteko haurrei zuzendutako *Ehuna* antzerkia eskainiko dute Dantzas & Teatro Paraiso taldeek. Sarrera 3 euro. Aforo mugatua. Biteri kultur etxea, 11:00etan eta 12:30ean.

USURBIL Bertsoak

Bertso-bazkaria egingo da Aitzaga Elkartearen. Aurretik kalejira egingo da Ane Azkonobieta eta Mikel Alkorta trikitilariekin, Mikel Laboa plazatik abiatuta. Maialen Lujanbio eta Igor Elortza bertsolariak izango dira kantuan. Txartelak, 20 euro eta 15 euro soldatarik gabekoak. Aldez aurretik Aitzagan, Bordabon eta Noaua! K.E.-ren egoitzan salgai. Aitzaga elkarteak, 14:30etik aurrera.

USURBIL Mundualdia

Mundualdiaren edizio berria antolatuko dute: 17:00etan, Gaztebearen ekintza. 17:30ean, herri kirolak guraso eta haurrentzat, Mikel Laboa plaza. 18:00etan, Alkatearen agurra. 18:10ean, Zirimara taldearen eta Orbeli Dantza Taldearen emanaldia. 19:00etan, Jakien dastaketa.

20:30ean, kontzertua: Hezurbeltzak. Frontoian, 17:00etatik aurrera.

ANDOAIN Musika

Artritis eta Arpavieja taldeen kontzertua, Gaztebearen urteurreneko egitarauan. Gaztetxea, 22:30ean.

IGANDEA 10

USURBIL Kontzertua

Izaki Gardenak taldeak kontzertua eskainiko du. Sarrera, 10 euro. Aurretik Bordabon, Txiristran, Lizardin eta Noaua!ko egoitzan eskuratu daitezke. Noaua!ko kulturaldiko ekimena izanik, bazkideek 8 eurotan erosi ahal izango dute elkarteako egoitzan. Sutegi auditorioa, 19:00etan.

ASTEAZKENA 13

LASARTE-ORIA Opera

Opera digitala atalean, Veronako Arenan grabatutako *Nabucco* opera ikusiko dute zaleek. Sarrerak, aurretik erositako, 7,5 euro eta egunean bertan 9 euro. Manuel Lekuona, 19:00etan.

OSTEGUNA 14

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

4 eta 6 urte arteko haurrek Pello Añorgaren ipuin liluragarriekin gozatuko dute. Manuel Lekuona, haur liburutegia, 18:00etan.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

Abominable
Larunbata: 17:00.
Igandea: 17:00.

Joker
Larunbata:
19:30, 22:00.
Igandea:
19:30.
Astelehena:
19:30, 22:00.

ASTIGARRAGA

KULTUR ETXEA

Batman Lego
Larunbata: 17:00.

Una canción para Marion
Asteartea: 16:45.

HERNANI

BITERI

Día de lluvia en Nueva York
Ostirala:
22:30.
Larunbata:
19:30, 22:30.
Igandea:
19:30.
Astelehena:
16:30.

URNIETA

SAROE

Wheely atrapalo si puedes
Igandea: 17:00.

USURBIL

URBIL

Estafadoras De Wall Street
Ostirala: 15:45,
18:05, 20:20,
22:35, 00:55.
Larunbata: 15:45,
18:05, 20:20,
22:35, 00:55.
Igandea:
15:45, 18:05,
20:20, 22:35.

Joker

Ostirala:
16:30, 17:45,
19:15, 20:00,
22:00, 00:35.
Larunbata:
16:30, 17:45,
19:15, 20:00,
22:00, 00:35.
Igandea: 16:30,
17:45, 19:15,
20:00, 22:00.

Maléfica: Maestra del mal
Ostirala: 16:15,
18:45, 20:25,
21:20, 23:50.
Larunbata: 16:15,
18:45, 20:25,
21:20, 23:50.
Igandea:
16:15, 18:45,
20:25, 21:20.

La familia Addams

Ostirala:
16:00, 17:00,
18:00, 19:00.



Larunbata:
16:00, 17:00,
18:00, 19:00.
Igandea:
16:00, 17:00,
18:00, 19:00.

Terminator: Destino oscuro
Ostirala:
16:15, 19:00,
20:10, 21:45.
Larunbata: 16:15,
19:00, 20:10,
21:45, 00:30.
Igandea:
16:15, 19:00,
20:10, 21:45.

Terminator génesis
Ostirala: 00:30.

La oveja Shaun, la película: Granjagedón
Ostirala:
15:45, 18:10.
Larunbata:
15:45, 18:10.
Igandea:
15:45, 18:10.

Ventajas de viajar en tren
Ostirala:
22:40, 00:55.

Larunbata:
22:40, 00:55.
Igandea:
22:40.

Zombieland: Mata y remata
Ostirala:
22:45, 00:55.
Larunbata:
22:45, 00:55.
Igandea: 22:45.

Doctor Sueño
Ostirala:
21:00, 00:15.
Larunbata:
21:00, 00:15.
Igandea: 21:00.

Abominable
Ostirala: 16:00.
Larunbata: 16:00.
Igandea: 16:00.

El silencio de la ciudad blanca
Ostirala: 22:50.
Larunbata: 22:50.
Igandea: 22:50.

El Dorado world tour
Azteazkena:
20:00.

Arimen I. Biltzarra

Gau Beltza egin dute Ttakun KEk eta Zabaleta Auzolanek

Gau Beltza edo Arimen Gaua izenez ezagutzen den euskal ospakizuna berreskuratu dute Ttakun Kultur Elkartek eta Zabaleta Auzolanek. Beste era batera esanda, Arimen I. Biltzarra ospatu zen Zabaleta auzoan, urriaren 31n, osteguna. Izaki beldurgarri ugari elkartu ziren Antonio Blas plazan, iristear den neguari harrera egiteko; iluntasunean eta iluntasunarekin jolastu zuten mamuek, zombiek, banpiroek, eskeletoek, sorginek eta batek imajina ditzakeen arima galdu eta munstro guztiek.

Euskaltzaleen Topagunearen ekimenez, hainbat herritan hasi dira ospatzen berriro Gau Beltza. Ospakizun hori zertan den esplikatzeko duen bideoa ikusi zuten herritarrek. Ondoren, euskal mitologiako izakiek gidatuta, *Beldurraren ibilbidea* egin zuten auzoan barrena. Bukatutakoan, sustoek xurgatutako energia gaztain erreak jaten berreskuratu zuten.



Izaki benetan beldurgarriak elkartu ziren urriaren 31n Zabaleta auzoan. Horieta bat, kandela bat pitzen. TXINTXARRI



Kalabazak eskuetan hartuta, *Beldurraren ibilbidea* egin zuten gazteek ere. TXINTXARRI



Barruan argia zeramaten kalabazak ez ziren falta izan Gau Beltzean. TXINTXARRI



Kandelena izan zen Gau Beltzeko argi-iturri bakarrenetako bat. TXINTXARRI



Zozketa!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean!


Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en BIZI DANTZA disko berria zozketatuko dugu.

Eman izena azaroaren 25a baino lehen harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.

@TtakunKE



Ttakuneko bazkide izan nahi baduzu sar zaitez:
www.txintxarri.eus/bazkidetu



Katxiporreta